



Lehiaren Euskal Agintaritzak ASCOM 2020 Saria jaso du, Compliance programak hedatzen egin duen lanarengatik

ASCOMek erakunde mailako urteroko saria eman dio Lehiaren Euskal Agintaritzari

Etikaren, gobernu onaren eta lehia-arauak betetzearen defentsan egiten duen lana aintzatesten du

BILBON, 2020ko abenduaren 17an / **Asociación Española de Compliance (ASCOM) elkarteak Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) etikaren, gobernu onaren eta lehiako arauak betetzearen alde egiten duen lana aintzatesti du gaur, erakunde-kategoriako ASCOM 2020 Saria emanez.**

ASCOM 2020 Sariak pertsonak eta erakundeek *compliance* funtzioa profesionalizatzeko, hedatzeko eta sendotzeko egindako ahalegina aintzatesten dute. Sari hori emateko, Asociación Española de Compliance Elkarteak (ASCOM) LEA/AVCk arlo horretan gauzatutako ekintzak izan ditu kontuan.

Erakunde mailako saria LEA/AVCri eman zaio, lehiaren arloan *compliance* kultura hedatzeko egindako lan handia aintzatestiz. “Compliance espirituak” LEA/AVCren lan guztia hartzen du, eta sakon dago errotuta Lehia Sustatzeko helburu estrategikoetan.

Lehiaren kultura zabaltzeko eta arauak betetzeko lan hori hainbat jardunaldi eta hitzaldi antolatuz eta horietan parte hartuz egin da, baita hainbat argitalpenen bidez ere. Horien artean 2019ko “Lehiaren arloko Compliance gida” azpimarratu behar da, diziplina horri buruz Estatuan egin den lehenengoa.

Halaber, lehiaren arloko *compliance* kudeaketa-sistemen estandar bat egiteko LEA/AVCk erakunde sustatzaile gisa Asociación Española de Normalización (UNE) izenekoaren aurrean egindako lana baloratu du ASCOMek. Ekimen horren helburua enpresak bete behar dituzten programetan lehiaren aldagaia txertatzea da, gobernu ona eta merkatuen funtzionamendu eraginkorragoa eta bidezkoagoa bultzatuz.

ASCOMi buruz

ASCOM. Asociación Española de Compliance, Espainiako Compliance Elkarteak, da, Espainian ezaugarri horiek dituen lehen elkarte profesionala. 2014ko maiatzean eratu zen, gure herrialdean *compliance* arloko profesionalentzako espazio komun bat sortzeko premiari erantzuteko.

ASCOM irabazi-asmorik gabeko elkarte independentea da, eta *compliance* funtzioan esperientzia handia zuten pertsonak osatutako talde baten ekimenez sortu zen, Espainian funtzio hori profesionalizatzeko helburu nagusiarekin. ASCOM sektore ekonomiko guztietako eta era guztietako



erakundeetako *compliance* arloko profesionalengana dago zuzenduta.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.